

AZPIEGITURAK

■ PORTUA

2013an Udalak herriko parte-hartzea-ekin prestatutako Portuko Plan Berezia aurkeztu zuen Jaurlaritzan. 2014an elkarritzeta saioa irekitzeko hitza eman zuen Jaurlaritzak; eta horretan ari dira jada.

■ MUTRIKU-SASIOLA

Errepidea egiteko alternatiba berriaren azterketa egingo da aurten. Aldundiak 60.000 euro jarriko ditu horretarako. Egingarria den proiektua prestatzea da helburua.

■ MIJOAKO SANEAMENDUA ETA BIDEGORRIA

Proiektua behin betiko bideratu nahi da. Udala, kontserba-entresak, Jaurlaritza (URA agentzia), Aldundia eta Ur kontsorzioa hainbat aldiz batu dira. Asmoa: 2014 amaieran, lehen fasea hasi; hau da, Mutriku-Mijoa tarteko saneamendua eta bidegorria egiteari ekin.

■ TURRUNTEGI-ALKOLEA ESPALOAIA

Espaloia egiteko ezinbesteko pausua emango du Udalak: proiektua idatzi. Horretarako, 18.000 euro jarriko ditu.

■ APARKALEKUAK

Behar handia duten bi gunetan aparkalekuak egingo dira: Entzusen eta komentuan.

• ENTZUS


20 aparkaleku inguru eta espaloia. Urtetako arazoari irtenbidea eman nahi dio Udalak. 2014 eta 2015 artean gauzatuko da egitasmoa. 2014an, 20.000€ bideratuko dira proiektu honetara.

• KOMENTUA


40-50 aparkaleku inguru. Kantera atzean etxebizitzak egiteko lurak eskuratuta ditu sustatzaile batek, baina datozen urtetan asmo hori ez du gauzatuko. Ezertarako lurak izan beharrean, Udalak etxebizitzak egin artean, lurro aparkalekuetarako erabiltzea adostu du. Lan horrek 90.000 euro balio ditu Udalak 40.000 euro inbertituko ditu inguru txukuntzen. Sustatzaileak horma bota eta lurra berdinduko ditu.

■ ERREMENTEIXA BOTA ETA PASABIDEA IREKI

Herriak pasabide berri bat irabaziko du. Ezertarako ez zegoen gunea bota eta txukundu egingo du Udalak, eta gunea horretan bizi direnei irtenbide berria ere eskainiko zaie horrela. 87.500 euro inbertituko ditu Udalak, aurten, lurak erosteko eta gunea egiteko.



Errementeixako pasabidea



Komentuko aparkalekuak

(Infografiek balizko itxura erakusten dute, ez dira guztiz zehatzak)